

JAKIN BEHARREKOA:

- Negua pasatu ondotik, otsailean edo martxoan eguraldiaren arabera, hasten da erregin gaztea habia egiten.
- Tennis-pilota baten neurrikoa den lehendabiziko habi honetan hasten dira larbak sortzen.
- Talde haundi samarra osatzen duenean, lehendabiziko habi hori utzi eta toki zabalago batera alde egiten du: zuhaitz, teilatu-hegal, e.a. Normalean, janaria eta ura dagoen tokietatik hurbil.



- Uda hondar aldera kolonia bat izatera irits daiteke, 2.000 liztor baino gehiago duen habia, eta horietatik gutienez 200 erregin gazteak izanen dira.
- Negu sarreran, abendu hasieran edo, sortuak diren erregin gazteak, bakoitza bere aldetik, hasierako habitik alde egiten dute negua pasatzeko babestuak diren tokietara.
- Bitartean, erregin zaharraren bizitza-zikloa amaitu eta bere liztor langile guztiekin batera hil egingen da.
- Neguan ikusiko ditugun habiak geldirik daude (hilak) eta udaberria baino lehen gehienak desagertu egingen dira.
- Negua bizirik pasatzea lortu duen erregin berri bakoitza liztor-kolonia berri bat sortzeko gai izanen da.
- Bizirik irauteko eta ugaltzeko kapazitate izugarria duen liztor-espezie bat da eta, horregatik, izugarri zaila da bere zabalkundea gelditzea.

ZER EGIN DEZAKEGU:

- Udaberri hasieran, negua biziraun duten erregin berriak bazkatu behar izaten dute (azukreak). Urte sasoi horretan ez dute nahiko azukrerik aurkituko naturan eta, horregatik, errazagoa egingen zaigu tranpata harrapatzea.
- Arrazoi horregatik, martxoan eta apirilean **izugarri garrantzitsua da tranpak jartzea** azukre ugari duten amuak erabiliz (garagardoa + siropea konparazio baterako).

► TRANPAK:


- Botil-tranpa: plastikozko botil baten goiko zatia moztu eta buruz behera sartu toki berean onil baten modura. Amu gisa gustagarri egingen zaien likidoren bat sartu eta astero berretu. Tranpak, ongi eginga izateko, ez luke intsektu handiak sartzeko biderik utzi behar baina bai intsektu txikiak eskapatzeko.



► NON JARRI TRANPAK:

- Erlauntzetan, 10 erlauntzendako 3 edo 4 tranpa.
- Lehendik habiak izan diren toki inguruetan.
- Janari-hondarrak botatzen diren zabor-edukiontzien inguruetan.
- Liztor hauek ikusten diren tokietan.

► HABIAK AURKITU ETA NOLA SUNTSITU:

- Udaberrian eta udazkenean egin behar dugu lan. Udazkenean, hostoak erortzean, errazago ikusiko ditugu non zeuden habiak



- Habi bat harrapatzen baduzu eta tokia edo arbola markatu gabe baldin badago, **deitu zure herriko telefonora** eta erran ikusi duzun habiaren kokapen zehatza zein den.
- Markatua baldin bada, **EZ deitu**.
- Herriko Etxeko arduradunen bat habia dagoen tokira joan eta marka egingen dio 
- Habia pozoitzeko egoki prestatuak diren langileak eta Herriko Etxeko arduraduna joanen dira eta egingen dute egin beharrekoa.
- Ondotik, honako marka hau egingen diote 
- Pertika: Pertika-sistema honekin pozoia zuzenean habian sartzten dute.
- Tiroak: Bertze inolako sistemekin ezin denean, kasu horretan, tiroka erasoko zaie.
- **Hau dena erregin berriak (kolonia sortzaileak) habitik alde egin baino lehenago egin beharko da (abendua aitinetik) eta Bortzerrietako Udalen artean elkar hartu eta koordinatuta.**

BORTZIRIAK

LIZTOR BELTZA (*Vespa Velutina*)

Ingurumenaren etsaia, denen etsaia

Denen laguntza ezinbertzekoa da:
Zer egin dezakegu?



ABISUA EMATEKO DEITU:

- ARANTZA: 948 634 005
- BERA: 012 | 948 630 005
- ETXALAR: 948 635 005
- IGANTZI: 948 637 781
- LESAKA: 948 637 005



ARANTZAKO UDALA



BERAKOUDALA



ETXARLARKO UDALA



IGANTZIKO UDALA



LESAKAKO UDALA